



**LANDA-IRTEERA BAT.
ANIZTASUNEZKO ASTEBURU BAT**

Eskoriatza (Gipuzkoa)
2026ko urriaren 2tik 4ra

HERRI BAT, IZATEKO MILA MODU

Zatoz zure elkartearekin.
Zatoz zure jendearekin.
Zatoz bizitzera.

GayLur
E u s k a d i

NORTZUK GARA?



GAYLUR Eskoriatzako irabazi-asmorik gabeko elkarte da, eta **Euskadin LGBTQ+ aniztasuna ikusgarri egitearen, inklusioaren eta haren defentsaren alde** egiten du lan, kultura, aisialdia eta gizarte-parte-hartzea eraldaketarako tresna gisa erabiliz.

2023tik, **pertsona guztiek askatasunez gozatu, harremanak izan eta adierazteko aukera izan dezaten** jarduerak eta guneak sortzen ditugu, gizarte anitzagoa, irekiagoa eta errespetuzkoagoa sustatuz.

Gure jarduerak **aisialdia, kultura, kirola, hezkuntza eta gizarte-ekintza** uztartzen ditu, adin eta profil ezberdinetarako proposamenekin. Besteak beste, mendi eta ibilaldi klubak, mahai-jokoak, irakurketa, abentura eta komunitatea eta parte-hartzea sustatzen duten beste hainbat ekimen ditugu.

360°-ko aniztasunean sinesten dugulako, LGBTQ+ kolektibotik harago doazen gizarte-proiektuak ere garatzen ditugu, beste kolektibo batzuentzat topaketa, laguntza eta parte-hartze guneak sortuz.

GAYLUR komunitatea, aniztasuna eta lurraldea da.

Eta **LurAnitz Fest** horren guztiaren adierazpen handienetako bat da: aniztasuna landa-eremura eramaten duen jaialdia, eta Eskoriatza topagune bihurtzen duena, **izateko, bizitzeko eta maitatzeko mila modu daudela ospatzeko.**

Aniztasuna^{360°}

ZER DA LURANITZ FEST?

LurAnitz Fest Euskadiko landa-eremuko aniztasunaren jaialdia da, asteburu batez LGBTQ+ aniztasuna landa-eremura eramaten duen ekimena, **kultura, aisialdia, musika eta parte-hartzea** ardatz hartuta.

Eskoriatzan sortua, jaialdiak **gune seguru, ireki eta jai-girokoa** eskaintzen du, non herritarrak, familiak, gazteak, elkarteak, saltokiak eta bisitariak elkartzen diren aniztasuna ospatzeko eta **pertsona guztiek gure herrietan beren lekua dutela aldarrikatzeko**.

2026an **hirugarren edizioa** ospatuko dugu, lelo honekin:

“HERRI BAT, IZATEKO MILA MODU”



DATA

TOKIA

**AURREIKUSITAKO
PARTE-HARTZEA**

2026
Urriak 2-4

Eskoriatza
(Gipuzkoa)

800 pertsona

Aniztasuna^{360°}

ZERGATIK ETORRI?

LGTBIQA+ jaialdia landa-ingurunean

Aniztasuna herrietan ere bizi delako. LurAnitz Festek landa-errealitateari eta identitate guztiek beren lekua izateko duten beharrari jartzen dio fokua.

Elkar ezagutu nahi dugulako

Beste lekuetako pertsonak eta kolektiboak ezagutzeko, esperientziak partekatzeko eta sare berriak sortzeko aukera.

Ospatzeko asko dugulako

Hiru egun kultura, gastronomia, musika, aisialdia, aldarrikapena eta festaz gozatzeko.

Zenbat eta gehiago izan, orduan eta urrunago iritsiko gara.

Beste lurralde batzuetako elkarteak eta taldeak hartu nahi ditugu gure artean, eta

Eskoriatza aniztasunezko topagune bihurtu.

Debagoiena eskualdeko inguruneaz ere gozatu.

Natura, jende alaia eta nortasun handiko herriak dituen **eskualdea**.



Aniztasuna^{360°}

BIZITZEKO ASTEBURU BAT



OSTIRALA VIERNES 2

- 19:00 GAYLUR ONGI-ETORRIA BIENVENIDA GAYLUR
- 19:00 MAHAI INGURUA, "TRANSEXUALITATEA: ESPERIENTZIAK, FAMILIAK ETA GIZARTEA"
MESA REDONDA, "TRANSEXUALIDAD: EXPERIENCIAS, FAMILIAS Y SOCIEDAD"
- 21:00 GAYLUR ONGIETORRI AFARIA CENA BIENVENIDA GAYLUR

- IBARRAUNDI MUSEOA
- FRONTOIAN
- ZALDIBAR ANTZOKIA
- HERRIKO PLAZA
- HERRIKO TABERNAK BARES DEL PUEBLO

PAELLA TIKETAK TICKET PAELLA

DORLETA LIBURUNDENDA URESTILLA



QR ONLINE

LARUNBATA 20:00-23:00 SÁBADO



BOKATA EGIN BERRIAK
BOCATAS RECIÉN HECHOS

LARUNBATA SÁBADO 3

- 11:00 GAYLUR AURKEZPENA GONBIDATU BEREZIEKIN
PRESENTACIÓN GAYLUR CON INVITADOS ESPECIALES
- 12:30 LOS TXIPIRONES TXARANGA
- 14:30 HERRI PAELLA POPULAR
- 17:00 HERRI CUIROLAK (HAURRENTZAT ETA HELDUENTZAT INFANTES Y ADULTOS)
- 18:30 ZUMBA
- 19:30 DJ BORRE
- 21:00 GAYLUR BARIETATE GALA VARIEDADES GAYLUR
- 22:00 LETICIA SABATER
- 23:30 DJ BORRE

IGANDEA DOMINGO 4

- 12:30 LANDA TRABESTI POTEOA TRAVESTI POTEÓ RURAL
- 14:30 BAZKARI HERRIKOIA COMIDA POPULAR
- 16:30 BINGO MUSIKALA GUADALUPE MERKADO MAXIKARRAREKIN CON LA MEXICANA GUADALUPE MERCADO
- 19:00 AGURRA DESPEDIDA

IZENA EMAN
INSCRÍBETE

Aniztasuna^{360°}

LURANITZ FEST 3 · ESKORATZA · 2026KO URRIAREN 2, 3 ETA 4A

NOLA ELIKATUKO GARA?



OSTIRALA AFARIA

- SARRERAKOAK
 - Urdaiazpikoa, txorizo iberiarra, saltxitxoia iberiarra
 - Txanpiak saltsan
- BIGARRENA
 - Etxeko haragi-bolak saltsan
- POSTREA
 - Flana edo natillak

LARUNBATA BAZKARIA

- Paella herrikoia plazan
- POSTREA
- Lacturale jogurta



LARUNBATA AFARIA

- **Bokata egin berriak** saltzeko mostradore bat jarriko da: patata-tortilla, solomoa, hirugiarra, txorizoa, urdaiazpikoa eta txuleta-kabezada.
- Ordainketa zuzenean mostradorean egingo da: txartel bidez edo eskudirutan.

IGANDEA BAZKARIA

- LEHENENGOA:
 - Patatak errioxar erara
- BIGARRENA:
 - Txerri gisatua saltsan
- POSTREA:
 - Lacturale jogurta



OHARRA: Menu guztiek ogia eta edariak barne hartzen dituzte.
(larunbateko bokatak izan ezik; kasu horretan, edariak plazako tabernetan eskatu beharko dira).

Aniztasuna^{360°}

Elkarte bat zarete? Zatozte elkarrekin

Euskadiko zein beste lekuetako elkarte eta kolektiboak Eskoriatzara txango bat antolatzera animatzea gustatuko litzaiguke, zuen bazkide, lagun eta planera batu nahi duten pertsona guztiekin.

Taldean etor zaitezke, autoa partekatu, zuen hiritik autobus bat antolatu edo garraiobide desberdinak konbinatu. Logistika zuen kontua da; pixka bat saltsa jartzeko eta gozatzeko gogoa, gurea!



Aniztasuna^{360°}

NON EGIN LO?



Ostatu hartzeko 2 aukera daude:



Gimnasioaren aukera:

12 €/gau ordainduta, gosaria barne, pilotalekuko gimnasioan koltxonetan lo egiteko aukera dago. Bertan, dutxadun komunak daude garbitu eta prestatzeko.

(Bakoitzak bere izara, manta eta burkoa ekarri beharko du)

(Aukera hau www.Gaylur.es webgunean bertan erreserbatu beharko da, plazak mugatuak baitira).

Sukha Hotelaren aukera:

Akordatutako tarifa berezia dugu Eskoriatzaren kanpoaldean dagoen Sukha Hotelean.

Nola egin hotelaren erreserba?

Deitu zuzenean hotelera (943 790 941) eta egin erreserba, **Gaylur-LurAnitz Fest jaialdirako dela ADIERAZIZ**. Garrantzitsua da hori adieraztea.

	2 GAU (Ostiraletik igandera)	GAU 1 (Larunbateko gaua)
BANAKAKOA	130€	75€
BIKOITZA	140€	85€
HIRUKOITZA	170€	105€

Tarifak gela bakoitzekoak dira, **OSTATUA ETA GOSARIA** barne.

ADIBIDEA: Gela bikoitzean 2 pertsona egonez gero, bakoitzak 70 € ordainduko ditu bi gauengatik, gosaria barne. Gela bakarrean pertsona batek 130 € ordainduko ditu bi gauengatik, gosaria barne. Gela hirukoitzean 3 pertsona egonez gero, bakoitzak 56,6 € ordainduko ditu bi gauengatik, gosaria barne.


Aniztasuna^{360°}

NON EGIN LO?

Frontoiko Gimnasioa



Sukha Hotela



Aniztasuna^{360°}

NOLA IRITSI ESKORIATZARA?





Aukera desberdinak daude

BILBOKO edo GASTEIZKO aireporturako HEGALDIA

(Eta, handik, autobusez Eskoriatzara edo alokairuko autoz)

Eskoriatzarako autobusak

Alokairuko autoak



Aniztasuna^{360°}

NOLA IRITSI ESKORIATZARA?



HELGADIAK

Bilboko aireportua
Gasteizko Aireportua



HELGALDIAK	BILBOKO Aireportua	GASTEIZKO Aireportua
BARTZELONATIK	VUELING	VOLOTEA
MADRIDETIK	AIR EUROPA	VOLOTEA
SEVILLATK	VOLOTEA	RYANAIR

Aniztasuna^{360°}

NOLA IRITSI ESKORIATZARA?



AUTOBUS ZERBITZUA



AUTOBUSAK

ESKORIATZA Helmuga

DONOSTIA-tik

LURRALDEBUS

<https://lurraldebus.eus/>

BIZKAIBUS

<https://www.bizkaia.eus/es/web/bizkaibus>

GASTEIZ-etik

LURRALDEBUS

<https://lurraldebus.eus/>

DNOSTIA-tik

LURRALDEBUS

<https://lurraldebus.eus/>

Aniztasuna^{360°}


NOLA IRITSI ESKORIATZARA?



Astebururako auto bat alokatu ahal izango duzu. Hauek dira tarifa onenak eskaintzen dituzten enpresak:

CLICK RENT:

RECORDGO:



AUTO-ALOKAIRUKO ENPRESAK	OTIRALETIK IGANDERA	WEB-a
CLICK RENT	110€ aprox	https://clickrent.es/
RECORD GO	96€ aprox	https://www.recordrentacar.com/es/

Tarifak gutxi gorabeherakoak dira, enpresen webguneetan ikusitakoak, eta frankiziarik gabe.

Erreferentziazko prezio hauek Bilboko aireportua abiapuntutzat hartuta kalkulatu dira. Ez da Gaylurrek kudeatzen duen zerbitzua; bakoitzak bere kabuz kudeatu beharko du.

Aniztasuna^{360°}

JARDUEREN KOSTUA



LurAnitz Fest-eko zapi ofiziala: 6 €

Gimnasioan ostatua: 12 €/gau, gosaria barne

Sukha Hotelean ostatua: Goian aipatutako tarifak. Erreserba bakoitzak bere kabuz kudeatu beharko du, hotelera zuzenean deituz eta Gaylur-en LurAnitz Fest ekitaldirako dela adieraziz.

Ostiraleko afaria: 22 €

Larunbateko paella: 16 €

Igandeko bazkaria: 22 €

Programako gainerako jarduerak

DOANAK dira, KOSTURIK GABE.



Oharra: Larunbatean afaltzeko, Gaylurrek plazan jarriko duen mostradorean bokata egin berriak eskainiko dira. Eskudirutan edo txartel bidez ordaindu ahal izango da.

Oharra: Travesti poteoko edariak parte-hartzaile bakoitzaren kontura izango dira. Bingo Musikaleko txartelak ere bertan ordaindu ahal izango dira, eskudirutan edo txartel bidez.

Aniztasuna^{360°}

IZEN-EMATEAK NOLA ERRESERBATU JARDUERAK?




Sukha Hotela: Bakoitzak zuzenean hotelera deitu beharko du erreserba egiteko, **GayLur-en LurAnitz Fest** ekitaldirako dela **adieraziz**.

Garraioa: Bakoitzak bere erreserbak egin beharko ditu. Gaylurrek hegaldi, autobus eta auto-alokairuei buruzko informazioa eskaini du soilik.

GAINERAKO IZEN-EMATEAK GAYLURREN WEBGUNEAREN BIDEZ, JARDUERAK – “LURANITZ FEST 2026” ATALEAN.

www.GAYLUR.com



Aniztasuna^{360°}

LURANITZ FEST 3 · ESKORATZA · 2026KO URRIAREN 2, 3 ETA 4A

HARREMANETARAKO DATUAK



Gaylur Euskadi Elkartea


EMAIL-a

 gaylur.elkartea@gmail.com

MOVIL-a/WHATSAPP-a

 681813557

WEB GUNEA-a

 www.gaylur.com



Aniztasuna^{360°}

NOLAKOA IZAN ZEN 2025?

GayLur
Euskadi



Aniztasuna^{360°}

NOLAKOA IZAN ZEN 2025?

GayLur
Euskadi



Aniztasuna^{360°}



**LANDA-IRTEERA BAT.
ANIZTASUNEZKO ASTEBURU BAT**

Eskoriatza (Gipuzkoa)
2026ko urriaren 2tik 4ra

HERRI BAT, IZATEKO MILA MODU

Zatoz zure elkartearekin.
Zatoz zure jendeararekin.
Zatoz bizitzera.

GayLur
E u s k a d i